

BERTAN BEHERA GERATU DA AINHOA ARTETAK EUSKALDUNAN EMAN BEHAR ZUEN “LA OTRA ORILLA” EMANALDIA

Enpresa sustatzaileak, artistak beste hiri batzuetan aurreikusita zituen emanaldiak ere bertan behera utzi ditu.

Bilbon, 2020ko uztailaren 29an

Ainhoa Artetaren “La Otra Orilla” ikuskizunaren enpresa sustatzaileak bertan behera utzi du 2021eko urtarrilaren 22an artistak Euskalduna Jauregian ematea aurreikusita zuen emanaldia. Eskuratutako sarrereren itzulketa gaurtik aurrera egin ahal izango da, eskuratzeko erabili zen kanal bera erabiliz (erosketa online egin zen kasuetan, itzulera modu automatikoan egingo da).

Enpresa sustatzaileak, artistak Estatuko beste hiri batzuetan aurreikusita zituen emanaldiak ere bertan behera utzi ditu, Granadan eta Sevillan, Kongresu Jauregian (otsailaren 4an) eta FIBESen (otsailaren 5ean), hurrenez hurren. Euskalduna Jauregiak eta enpresa sustatzaileak barkamena eskatu gura dute, eragindako eragozpenak direla eta.